

## BESTELAKO XEDAPENAK

### SEGURTASUN SAILA

# 5148

*EBAZPENA, 2022ko urriaren 20koa, Trafikoko zuzendariarena, beste ebazpen honen hutsen zuzenketa egiteko dena: 2021eko urriaren 22ko Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean zinemometroak zein irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko beste zenbait tresna osagarri instalatzea eta erabiltzea baimentzen duena, trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplina helburu.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2 c) artikuluan ezartzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Horrelako erroreak aurkitu dira Ebazpen honetan: 2021eko urriaren 22ko Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean zinemometroak zein irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko beste zenbait tresna osagarri instalatzea eta erabiltzea baimentzen duena, trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplina helburu. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2021eko azaroaren 15ean, 226. zenbakian, eta hona hemen zuzenketak:

Lehen ebazpen-zatiko taulako hirugarren zutabean, honako hau dioen lekuan:

Bide-zatia	Bidea	Kilometro-puntua	Noranzkoa
1 bide-zatia	BI-633	36,1etik 39,78ra	Gorakorra
2 bide-zatia	BI-633	39,8tik 36,1era	Beherakorra

Honako hau esan behar du:

Bide-zatia	Bidea	Kilometro-puntua	Noranzkoa
1 bide-zatia	BI-633	36+1000tik 39+780ra	Gorakorra
2 bide-zatia	BI-633	39+800tik 36+1000ra	Beherakorra

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 20a.

Trafikoko zuzendaria,  
SONIA DIAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA.